

**EUSKAL NAZIO IDEIA MODERNU-  
AREN ETA LEHEN NAZIONALISMUAREN  
BILAKAERA HISTORIKOA**

Jokin Apalategi

Urrunago joan gabe, hamasei eta hamazazpigarren mendeko euskal idazleean, han hemen, aise aurki liteke, Euskal Herria bere zazpi probintzia historikoetan izendatzekoan, “euskal nazioak” (des nations basques edo naciones vascas) bezala ematen duenik. Besteak beste, 1586-tik 1667-ra bizi izan zen Jacques Bela zuberotarrak bere idatzietan erabiltzen du deitura hori. Egia da ere, eta oroitarazi behar da, Naparroako Erreinua, Goi Naparroari zegokionean, 1512-an Fernando el Catolico espanyiar erregeak Julio II Aitasantuaren “Bula” batetatik aitzakia harturik, indarrez berengana-natu ondoren, napartar erregeei Ipar Euskalerria eta Bearne bakarrik gelditzen zitzaiela. Eta Joana Albret napartar erreginak 1559-ko Pazkuaz publikoki eta haundizki Calvinoren erreforma besarkatu zuela Paben. Eta hain zuzen, Jacques Bela zuberotarra giro honetan emotutako pertsonaia izanik, galdezko da bere “euskal nazioak” deitura hori protestante iza-tearen aukeratik ote zetorkion ala eta erabilkerak hedatuagorik bazeen (1). Zeren, dakiguna eta frogatua baita, protestantismoak nazio ideiarekin historikoki izan duen zerikusi larria. Baino, gaur guretzat guzti hau bidenabar egiten dugun aipamen bat izanik, ez gara arazo horren sakonagoan murgilduko. Dena dela, norbait bete betean sartzea merezi lukeen gairik ba da hor.

Halere, Frantziako Erresuman kalbinistak edo hugonoteak ordezkatzentz zuten protestantismoa, esan dezagun, gogorti eraso eta jazartua izan zela François Lehenaren eta Henri Bigarrenaren erreinuetan, eta azkenik, Karlo Bederatzigarrenaren mandataritza garaian, 1572-ko urtean Jaun Done Bartolomeren gaeuko sarraski ezagun eta izugarriekin eraso horiek gailurra jo zutela. Erasotzaile horietan ez ziren faltatu euskal jauntxoak ere. Eta hau historia horren beste aurpegia dugu. Guk gaur darabilgun gaiari ihardestekoan, beharrezko zaiguna. Zeren, aipamen honekin katolikoen artean Euskal Herriak zuen beste deitura hori zernolakoa zen ezagutzea baimenduko zaigu. Euskal erasotzaileen aipamen laudoriogarri bat, hots, katolikoen ikuspegitik so, Juan Tartas zuberotar idazleak 1666-an

---

(1) *Ikus, Gve. Clément Simon, “Le protestantisme et l’érudition dans le pays basque au commencement du XVII siècle, Jacques Bela”, Biographie. Extraits de ses œuvres inédites, Paris, 1896.*

argitaratutako “Onsa hiltzeko bidia”-ren lehen atalean, hots, “Gomendiosko letra” deituan, Moneineko Jaun Markisari dedikatian, egiten du: “Ezta hil oraino Valentin de Domesain<sup>^</sup>, de Moneins, jaun handi, kapitain zühür, korajos haren memoria akzione ederrik, eta saindürik egin dū hark ere, Charles Frantziako errege izen hartako bederatzügarrenaren pian, Eliza saindiaren, bere resumaren bere erregiaren, bere herriaren alde eta faboretan, eresiaren, eta hügenoten kontre”. Eta horren ondotik Euskal Herriaren eta gaineatiko zenbait Herriren artean, aldi berean, berezte eta parekatze den aipamen kurios bat egiten du: “Geroz eta lehen izan da zure familialen personaje handirik, Frantzian, Italian, Biarnoan, Euskal Herrian, Moneineko izena gora eraman dianik. Historia irakurtü nahi dianak, edirenak dū gehiago laudorio zure etxe ohoratiaren antikitatiaz, ezi ez nik ezpaniro erran, neure jaun ohoratia letra hontan”.

Bistan da aipamen honetatik ez dugula gauza haundirik atera. Baino, argi eta garbi dago, Euskal Herriak, garai haietan Herri oso baten kontsiderazioa zuela katolikoen giroan ere,

Geroago ere, hain zuzen, hemezortzigarren mendean, eta Jacques Bela zuberotar horren biloba bati, hots, Jean Philippe Bela Zaldunari, Louis XV Frantziako Erregeak “Cantabres volontaires” izenez tropa arinen erregimentu bat egiteko agintzen dionean baldintza bezala “basques de nation”, hots, nazioz euskaldunak daitezela hori formatuko duten soldaduak esango dio. Aipatu dokumentu honen kuriositatea kontutan, J. de Jaurgain-ek dakarrenean, E. Ducérék argitaratutako “Mémoires militaires du Chevalier Bela” liburuaren Hitzaurrean ageri denean, ematen dugu: “Commission de colonel d'un régiment de troupes légères, sous le titre de Cantabres volontaires, pour le sieur chevalier de Bela. Louis, par la grâce de Dieu, roy de France et de Navarre, à notre cher et bien aimé le sieur chevalier de Bela, capitaine dans le régiment de hussards de Berchiny avec rang de lieutenant-colonel, salut... Ayant résolu d'augmenter nos troupes d'infanterie d'un régiment de troupes légères sous le titre de Cantabres volontaires, composé de dix compagnies de 50 hommes chacune, et désirant donner le commandement du Régiment en qualité de colonel à une personne qui ait toutes les qualités requises pour s'en acquiter dignement, nous avons estimé que nous ne pouvions faire pour cette fin un meilleur choix que de vous, pour les services que vous avés rendus dans toutes les occasions qui s'en sont présentées, où vous avés donné des preuves de votre valeur, courage, expérience en la guerre, vigilance et bonne conduits et de votre fidélité et affection en notre service. A ces causes et autres, à ce nous mouvans, nous vous avons commis, ordonné et estably, commettons, ordonnons et establessions par ces présentes, signées de notre main, colonel dud. régiment et capitaine de la première compagnie d'iceluy, laquelle vous leverés et mettrés sur pied le plus diligemment qu'il vous sera possible du nombre de cinquante hommes à pied (les officiers non compris), *Basques de nation*, des plus vaillants et aguerris soldats que vous pourrés trouver, pour en lad. qualité et colonel, commander led. régiment, le conduire et exploiter sous notre autorité et sous celle de nos lieutenants généraux là

part et ainsi qu'il vous sera par nous ou eux commandé et ordonné. pour notre service, et nous vous ferons payer ensemble, les officiers, sergents et soldats qui vous seront et à eux dus suivant les montres et revues qui en seront faites par les commissaires et controlleurs des guerres à ce départis, tant et si longuement que led. régiment sera sur pied pour notre service, tenant la main à ce qu'il vive en si bon ordre et police que nous n'en puissions recevoir de plaintes. De ce faire, nous vous donnons pouvoir, commission, autorité et mandement spécial. Mandons à tous qu'il apartiendra de vous recevoir et faire reconnoître en lad. charge de tous les capitaines, officiers subalternes, sergents et soldats qui composeront led. régiment, et qu'à vous en ce faisant soit obéy, car tel est notre plaisir. Donné à Versailles, le quinzième jour de décembre, l'an de grâce mil sept cens quarante-cinq et de notre règne le trente-unième. Signé: LOUIS, et plus bas: M. de VOYER d'ARGENSON. (Papiers de Jaurgain, dossier de Bela, original de parchemin").

Oraingoz, sarrera gisa agertu nahi genduenaren lekuko aski delakoan, arazoaren adierazpena honetan utzirik, gure egungo gaiaren muinera igarotzeko prestatzen gara. Hain zuen, nazio ideia modernuak Euskal Herrian egin izan duen bidea nondikakoa eta norakoa izan den agertzen ahalegin-duko gara.

## I. EUSKAL NAZIO IDEIA MODERNUAREN ERROEN BILA

Frankist aroaren atarian, lehenik euskaldunak eta gero gaineatiko atzerrietaoak gauza batetaz, bat-batean, jabetu ziren: euskal soziokultural dinamika berezi bat ba zela Euskal Herrian. Baino, horren erroak nondikoak diren jakin nahirik, zerk sortu duen galdeztzen badugu, aurrez arrazoitua izan den euskal nazioaren ideia bati zor zaiola eta hori bera oraino indartsuago eta sendoago egitera bideratuta zegoela agertuko zaigu. Eta uste hau ez da guk historia hortaz egindako irakurketa eztabaidagarri baten fruitu. Are, garaiko protagonist zenbaitek argi eta garbi aitortzen diguten dokumentuekin froga liteken zerbait da baizik.

Adibide batek, garaiko euskal intelektualgo haren barren kontzienciaren neurria agertuko digulakoan ondoko aipamen hau birlandatzen dut: "Los beneméritos directivos de la Acción Popular Vasca —Euskaltzaleak— prosiguen con una constancia y un tesón dignos de toda la ardua labor de despertar las conciencias dormidas de los vascos, en relación con su patrimonio tradicional, particularmente en el terreno cultural, que es, en definitiva, el que al fin y a la postre impondrá sus fueros en los restantes sectores de la vida de Euzkadi. A los años de inacción y confusionismo ha sucedido una época de dinamismo, de actividad, de vitalidad pujante y vigorosa, cuya cima está cifrada en la rebusca de todo cuanto lleva el sello racial vasco, y ostente una emoción, un alito y un latido del gran corazón de la raza

—noble y antigua por antonomasia— que ahora despierta regenerada de sus máculas seculares. Influencias exóticas en lo cultural, social y político, una lucha enconada y no interrumpida durante largas centurias, ha debilitado y casi anulado la personalidad vasca en la conciencia de su misma raza. Inconsciente frecuentemente, pero suicida actitud que ahora comienza a reconocer los yerros de su pasada conducta, para enmendarlos y corregirlos a fuerza de despliegue intenso de energías en defensa de nuestro tesoro patrio cultural.

El campo científico vasquista ve nacer y germinar, con pléthora de vida por el entusiasmo que ponen en la empresa sus dirigentes, una nueva manifestación literaria, una publicación que ha de recoger las ondas emocionales del alma de nuestro pueblo, para reforzarlas en el alta voz de sus páginas y hacerlas llegar a las clases intelectuales del país, la aristocracia de las ideas, selección de fina espiritualidad, la cual integra el Estado Mayor que regule la marcha de nuestras casas y fomente e instigue el espíritu dominante, comodón y estático de grandes zonas del pueblo. Este necesita de un espaldarazo que le haga erguirse y ocupar con dignidad el honroso puesto que le corresponde en el admirable concierto de las naciones y de los pueblos. Su abolengo le autoriza a ello. Su historia le fuerza e impele a sacrificarse para conservar el brillo de nuestros apellidos (2)".

Hitz sutsu hauetan ageri denez euskaldunen arbasoetiko ondarearen ideia azpimarragarri aurkitzen dugu, zeinek, ikertzen dugun garaiko nazionalismuan izaera funtsezko bat du. Eta batik bat, konpon ezinezko moldean “atzerriatik datorzkigun kultural, sozial eta politiko influentziei” oposaturik ageri denean. Testo horretan ez da ere falta “euskal arrazazko marka dutenen birrikertzeari dagokion” aipamena. Izañ ere, euskal lehen nazionalismuan, nazioaren baloreen jerarkian, arrazarena, Jainkoaren pean, gailurreneko bezala emango zaigu.

Testoari buruzko ohar hauek egunik, esan dezagun, euskal kultural berpizte hau, euskal berezitasunaren alde ezberdinak definitzera eta bilatekatzen partikulazki zuzendurik ageri dena, ez dela fruitu arraro eta isolatu bat. Aitzitik, eginkizun hori aurre historia luze baten jarraipen da. Eta eginkizun hori nolabait definitu nahirik, itsasoko uhinen modura ematen dela historian zehar esango dugu, hots, hastapenean, uhinak tipiak dira eta pis-kaka, haunditzen joango dira, erraldoi bilakatu arte.

Guzti hau horrela izendaturik, uhin horien lehen mailakatzetik lehen nazionalismuaren mugatze osora artekoak aipatzen saiatuko gara. Zeren eta, euskaldunek historian zehar, izaki propio eta autonomodun herriaren frogak emateari behin ere utzi ez badiete ere, berena dela “naturaz” edo tradizioz konsideratzen duten horren galzoria konprenitu dutenean bakanrik eta orduan ere, defentsarako soil soilik zutitu izan dira, eta une horretan beren nazional kontzientzia ernetzen hasten da. Guk nazional kontzientziaren sorrera agertzeko aurreratu dugun ikuspuntu hau Arturo Cam-

---

(2) *Ikus, Alberto Onaindia, Indices sociales en Euzkadi, in YAKINTZA n.º 2, marzo-abril de 1933, Editorial G.E.V., Bilbao, 1977, pp. 124-125.*

pionek karlist gerrateko susperkundea eta jazarkundea agertzeko honela erabiltzen du: Espainiar Estatuaren Iparraldean politika iraultzailearengatik bultzatuta euskal nazional mamiz beterik eman zen jazarkundea, pozonez betetako janariak irentsi dituen urdailaren goragaleen antzeko izan zen. “Fue el alzamiento carlista del Norte una reacción de carácter eminentemente ‘nacional, provocada por la política revolucionaria; algo semejante a las arcadas de un estómago que ha ingerido sustancias venenosas y purga por, expelerlas” (3). Halere, testo hau medio, hemendik ez ezagun konkludi euskal nazio ideia modernua karlistedekin asten denik. Ez, laster aditzera emango dugunez, askozaz ere zaharragoa da. Baino, horretarako hurbiltzearekin bukatzen, esan dezagun, azken funtsean zerbaiten defentsa eta gure gaurko gaiarekin jarraituaz euskal nazioaren defentsa, betirako galteza arriskatzen duen zerbaiten edo norbaiten kontzientzia hartzearen jarraipen bezala ageri zaigula. Hori hainbatean da egia, non galerako arrisku hori urrutiratu dela zihurtzeak defentsaren desagerpena suposa bait dezake. Lege horren ondorio bezala eta ez bestela esplikatu behar da askatasun eta independentzia gehien duten herriek diskurtsu abertzale gutien edukitzea.

1. Euskal nazio ideia modernuari buruz ditugun dokumentu historiko zaharrenak Larramendi andoaindar jesuitaren idatziak ditugu.

Eta zer sozio-ekonomiko eta kultural testo-ingurutan egosi zen Larramendi andoaindarraren obra? Euskal Herriaren geo-fisiko baldintzak, bere Arabako eta Naparroako probintzietatik at, produkzio molde nagusitzat lurlangintzarena zenean, gaineatiko herrienen alboan desfaboretuak ziren bene-benetan, eta ondorioz euskal mendietan eta kostaldean bizi ziren gizon-emazteak beste bizi-molde batzuek bilakatzera goizki behartuta aurkitu ziren. “Así, en las provincias vascongadas, parientes mayores, caballeros de las órdenes y títulos explotan directamente las ferrerías y los astilleros, y al mismo tiempo compran y venden mercancías, e incluso dan alimentos a gentes de fuera consagradas al comercio. De modo que puede decirse que allá a mediados del siglo XVIII existía en Guipúzcoa y Vizcaya una clase social que no era parecida a la gran aristocracia castellana y andaluza, ni tampoco semejante a la de la literatura, sino que a la que podría comparársele es a la que en Inglaterra llamaron “the gentry”, constituida por familias adineradas, de linaje más o menos oscuro y mezclado, que aumentan su dinero, generación tras generación, y que viven muy orgullosamente, usando todos los adelantos y modas del momento (4)”.

Baina, aldi berean, erakunde politiko eta zibilen bilakaera ematen da, testamentuak egiteko askatasunak eta *propter nuptias* emaitzek erakusten dutenez. Era berean, ohitura, nahiz eta legearen aurkakoa izan, bere dertxoaren iturri garrantzizkoenaren kategoriara altxatzen da. Eta horrelako

(3) *Ikus, Arturo Campión, Textos vascos de sociología y política. Discursos políticos y literarios, Ed. G.E.V., Bilbao, 1976, in Conferencia acerca del origen y desarrollo del regionalismo nabarro dada en la Lliga de Catalunya, 3-6-1891, p. 33.*

(4) *Ikus, Caro Baroja J., Vasconiana, Ed. Txertoa, San Sebastián, 1974, pp. 161-162.*

abar luze bat. Euskal Herriko erakunde hauek, garai bereko izanik, lege feudaletan murgildurik zeuden gaineatiko herri hauzoenekin gonbaratzan baditugu, zera konkluditu behar dugu, Euskal Herrian aurrera-hartze demokratiko garrantzitsu bat egon izan dela. Eta hain zuen, euskal arazo politikoaren erroak hortan dagoz. Zeren, XVIII-garren mendeko española monarkia, ekonomiaren eta demografiaren birberritzte kontsideragarriaren ondotik, bere politiko sistema egoera hortarako egokitzten ahalegindu izan baita.

“Así los privilegios locales desaparecieron. El legalismo de los juristas, expresado particularmente por el “Consejo de Castilla”, sustituyó los viejos organismos autónomos por capitánías, intendencias y audiencias. Y este esfuerzo triunfó porque supo conciliarse el favor de los sectores dirigentes de las provincias activas. De este modo el centralismo capta en realidad las fuerzas vivas de las provincias: la unidad se afirma (5).”

Baina, agintekeria hori ez dute sozial klase guztiak onartzen Euskal Herrian. Protesta horren aitzindari Larramendi jesuita ageri zaigu. Orain monarkiak aurrerapen bezala aurkezten dizkigun “legeak”, euskal komunitatearen *foruak* baino hobea goak daitezkelu ukatzen du. Ez du ere onartzen euskal *forua* pribilegio bezala izendatua dadin. Laburtuaz, bere euskaldungoaren defentsan hiru alderdi berez dezakegu. Horiek, gero, lehen nazionalismuaren bilakaeran garrantzi haundi bat edukiko dute. Lehenik, tradizioa baloratzen da. Bigarrenik, euskal herriak “etniazko” komunitate bat osotzen duela aipatzen diren hegi diferentziatzaleekin erakusten da. Hirugarrenik, euskal herriak bere berea duen hizkuntzaren garrantzia seinatzen da, hots, euskara jakintzetarako balio osoko daitekela frogatzen entseiatzen da (6).

Euskal forua, ezpairik gabe, bere hastapenean, gure gizartean bilakatu zen produkzio molde desberdinako sistimak eragindako erakunde berrien neurriko lege bilduma besterik ez zen. Denborarekin eta geroago bakarrik, izaera berriak hartu ditutze foruek, zeren, batzutan Castilla-ko, Aragoiko eta beste herrialde batzuetako Erregeei euskal probintziek eskainitako serbitzuen truke hoiengatik dohain bezala emanak izan baitira.

Oraindainokoan agertu dugunez, Larramendiren oposizioa teoria mailara mugatzen dela konpreni dezakegu. Baino, piskanaka, denborarekin oposizio praktikoan bilakatuko da euskaldungoaren defentsa. Honela, XIX-garren mendearen hastapenean, euskaldungoaren defentsa, lurlangintzatik bizi diren aristokraten edo lurlangintza produkzio molde duten propietarioen ikurrin bihurtuko da, eta bere bestekaldean, 1808-ko Cadizko Kortezian landuko den Konstituzio liberal eta bateratzaile hori defendituko duen burgesia komertzial eta industrial bat aurkari izango du (7).

(5) *Ikus, Pierre Vilar, Histoire d'Espagne, P.U.F., Paris, 1975, pp. 69-70.*

(6) *Ikus, Manuel de Larramendi, Coreografía de Guipúzcoa, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A., San Sebastián, 1969. Eta euskararen jakintzarako baliotasunaz, “El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada”, Hordago, Donostia, 1979.*

(7) *Ikus, Fernández de Castro, I, “De las Cortes de Cádiz al Plan de Desarrollo, 1808-1966”: Ruedo Ibérico, Paris, 1968.*

2. Manuel Larramendik euskaldungoaren defentsan teorizatutako euskal hegiak oihartzunik izan zuten Euskal Herriaren Iparraldean ere. Jarraitzaile idazle horietatik bat dugu, hain zuzen, Jean Philippe Bela zuberotarra (1709-1796). Besteak beste, bere aburuak lan haundi batenetan utzi izan dizkigu. Gaurregun Parisko Biblioteka Nazionalean dagoen bere "Histoire des Basques" liburua dugu lekuo. Manuel Larramendik hain gogoko zuen euskaldunen noblezia unibertsalaren ideia gidari duela moldatuta dago. Lan horren zabalaroa ere aipagarria da: hiru liburutan 600 orrialde egiten ditu. Bestalde, Jean Philippe Belaren euskal hiztegia azterzen ari den Txomin Peillenek esan digunez, hitz anitz ornen du, Larramendik egindako horietatik. Biziki hurbileetik ezagutzen ornen du Larramendiaren obra. Beharbada, Jean Philippe Bela Zalduna zela, eta Aita Larramendi Baionan Espainiako Erreginaren aitorle izan zela dakigunean, bi aldeetako euskaldunen influentzia hauek oraino hobeto esplikatzen dira.

XVIII-garren mendearen bukaeran, eta politika praktikoaren alorrean ere, ba dugu euskaldungoaren defentsan, ageri den jokabiderik. Honela, Gipuzkoako Aldundiaren Elkartean lehendakaritza zuen Etxabe jaunak zazpi probintzia historikoekin estatu neutrto eta libro bat egiteko proiektu bat aurkeztu izan zuen, Espainia eta Frantzia Estatuetako gobernarien artean Euskal Herriaren mendekuntza eztabaideatzen zutelarik.

Helburu berekin, eta Napolenen mandataritza garaian, Ustaritzeko Jose Domingo Garat-ek, zazpi probintzien batasun politikorako proposamen bat prestatu izan zuen. Gogora dezagun ere, gertakari hau neurtzeko beharrezko bait deritzaigu, Jose Domingo Garat hau bera izan zela, 1789-ko frantses Konstituzioa, hots, Frantziako Iraultza Haundiak landua, bere hamargarren artikuluan gure tradiziozko ohitura zaharrak lege indarra galtzen zutela, izenpetu zuen Justiziako Ministroa. Batak ez duela bestea kentzen edo ezinezko bihurtzen? Litekena da, baina, hortik errezkeriak edo ameskeriak bultzatuta sentimentalkerietan erori gabe. Zeren, gertakari historiko bat ba da ere, ez baitu taktika politikoaren ataria igarotzen. Guk, gure gaiari dagokionean konstatapena eginik hontan uzten dugu gaurkoz.

3. 1833-an historikoki karlista eta liberal izenez ezagunak diren sozio-politiko taldeen artean gerra pizten da. Funtsean, interklasista bezala detinitu behar diren bi talderen arteko gerra da. Zeren, nola bata hala bestea, burgesia bereko zatiki ezberdin ziren jendeek zuzentzen bait zituzten. 1839-ko aboztuan Bergaran bi aldeetakoak besarkatuko ziren. Ondorioz pausaldi bat sortuko zen. Baino, 1873-an berriro gerra altxatuko zen. 1876-ko uztailaren 21-an gerra bukaeraren ondoko lege batek euskaldunen azken askatasun funtsezkoak deuseztzen ditu. Bukaera hau, azterzen ari garen gaiari dagokionean, garrantzi haundieneko da, zeren, lurlangintzatik bizi zen aristokraziak gerraren hastapenean euskal tradizioaren alde edo euskaldungoaren defentsan altxatua zuen ikurrina orain erortzen uzten baitu. Honela, sozio-politiko talde horren inguruan bildurik burukatzen zen herritar jendea tronpatuta sentitzen da. Beren gerrarako motibazioetan aristokraziak engainatu egin dituela jabetzen dira.

Herritar jendeak euskaldungoaren defentsan burruka egiten zuela argi eta garbi agertu izan digu Agustin Txahok, 1835-ko apirilaren 7-an Tomas Zumalakarregirekin edukitako elkarritzketa hartan. Gogora dezagun, "Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques (1830-1835)" dela elkarritzketa horren testamentua den obraren izena.

Eta Agustin Txahorentzat zerk egiten zuen euskaldungoa? Lehen lehenik, Larramendik egiten zuenez, euskaldungoa bere berezitasunetan azterzen du. Gaineatiko herriean ez bezala agertzen den hartan ikusten saiatzen da. Eta zer ikusten du besteetatik berezten gaituenik euskaldun-goa?

Beretzat, euskal nazioaren lehen izaera, euskal lurrean edo lurrualdean datza. "La Castille a l'Ebre pour limite du côté des Pyrénées. Ce fleuve est resté navigable jusqu'au moyen âge; ses eaux, depuis quelques siècles, ont éprouvé le même décroissement que celles de la Garonne. Les montagnards qui avoisinent ses sources racontent qu'à l'approche des orages de profonds roulements se font entendre dans les entrailles des vallées, comme si la lutte de quelques feux souterrains correspondait à l'agitation de l'air extérieur; et l'eau du fleuve jaillit alors, troble et fumante, entre les rochers. L'Ebre conserve, à la distance des plusieurs lieux, la chaleur qu'il apporte en naissant; jamais ses ondes ne restent captives sous les glaces, et la plus douce température règne sur ses bords. Mais aussitôt que le voyageur poursuit sa route vers le nord, il sent un air plus vif; des collines s'élevent, ombragées de leurs forêts, sillonnées de torrens; les accidents de terrain se multiplient, et bientôt, se dresse à ses regards, sur un horizon fantastique, l'amphithéâtre des Pyrénées, dont les Basques peuplent les gradins.

...De la Castille aux provinces basques le contraste est complet, saisissant: il ne l'est pas moins du côté de France, lorsqu'après avoir parcouru, depuis Bordeaux, ces landes sablonneuses où de misérables pâtres, couverts de peaux de brebis et perchés sur de hautes échasses, s'en vont errants parmi les sapins comme des fantômes, le voyageur franchit l'Adour et pénètre dans les vallées des Basques cis-pyrénéens" (8).

Lurralte horretan bizi direnen fisonomia ere azpimarratzen du. Agustin Txahoren baitan konstatazio izatetik ez da igarotzen. Berezgarri denez eta ikuspuntu horretatik egiten duen konstatazioa da, noski. Geroago Sabin Arana Goiriarekin arrazakerira ailegatuko da fisonomia berezgarriaren konstatazio hori. Baino, orain eta hemen, konstatazio soil bat besterik ez da.

"Récemment affranchi du joug féodal, le Novempopulanien parle un patois celtoromance fortement accentué, qui trahit à la fois sa servitude sous les Romains et son origine barbare. Située à la frontière du pays basque, la ville de Bayonne rapproche les deux peuples sans les confondre, et le voisinage des têtes gasconnes sert à mieux faire ressortir tout ce que la physionomie du montagnard pyrénéen présente d'originalité poétique (9)."

(8) *Ikus, Augustin Chaho, Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques (1830-1835), Ed. Laffitte Reprints, Marseille, 1979, pp. 4-5.*

(9) *Ibid. p. 5.*

Eta batik bat, euskal komunitatearen historian zehar aldagaitz izan den euskal hizkuntza seinalatzen da.

“Le Basque, depuis son établissement dans les Pyrénées, n'a rien conservé d'invariable que la divine langue et la liberté originelle de ses ancêtres; le long séjour des montagnes a puissamment modifié son être physique. Les influences d'une autre terre et d'un autre ciel ont fait perdre au Cantabre le teint brun et la chevelure frisée que Tacite attribue aux anciens Ibères; sa taille, primitivement petite, a grandi jusqu'à se rapprocher de celle des géants, enfants du nord. L'âme euskarienne a subi, dans le cours des siècles, la métémpsychose d'une incarnation nouvelle et, pour ainsi dire, locale; mais ce changement, plus extérieur qu'essentiel, n'a point détruit les formes et les harmonies caractéristiques qui font de cette race l'un des beaux types de l'espèce humaine (10).”

Laburtuaz, ondoko molde honetan bil genezazke bere teoriaren atal nagusiak: herri berezi bat garenez, gure tradiziotik datorkigun bizi molde batekin konformatu behar gara. Gogoz onartu behar dugun eginkizuna da hori. Eta tradizioz datorkigun bizi molde hori Foruetan aurkitzen dugu.

4. Karlistaden amaieran, euskaldungoaren defentsa ikurrin eginaz jokatu zuten jauntxoen portaera ikustean, haieten konfiantza jarria zuten herritar jendeek nahigabeturik sentitu ziren. Eta horretan zirela, mugimendu berrien ideiatzen hasiko ziren. Euskaldungoaren defentsa eramango zuen mugimendu berri hori fronte edo eskualde ezberdinatan bilakatzen joango da. Azkenik, horietariko batetan lehen nazionalismuaren teoria bilakatu arte, noski. Baina, gure nazioaren teoria sistematizaturik politiko mugimendu baten serbitzuko ezarriko duen frontearen egintza aztertzera heldu aurretik, giro kultural baten suspertziale izango diren gaineatiko fronteak nola bilakatu izan diren ikusiko dugu.

Lehen arnasa Naparroan 1878-an ematen da. Urte hortan “Euskara” izeneko aldizkari bat kaleratzearrekin, hain zuzen. Bere eragileen artean, besteak beste, Arturo Campion, Oloriz eta Irurrealde y Suit bereztuko ditugu. Gure gaiarako Arturo Campionen obrak zuzeneko interesik duelarik bere aurkezpen laburtu batetara igaroko gara. Baina, aurrez, esan dezagun, horrela eginik ere, ez dugula bere pentsakera politiko osoa agortzeko asmorik. Eta hitz bitan, bere mamia bildu nahirik, Arturo Campionen pentsakera foralista zela azpimarratuko dugu, foralismo hori bere esannabi baikor eta sakonenean hartzen dugularik, hots, nazionalista autoizendatzera helduko baita autorea.

Arturo Campion nazioaren definizio bat proposatzera ausartzen da. “De forma, señores, que refiriéndose a un mismo conjunto, podemos denominarlo diversamente, según sean nuestros puntos de vista, *raza* cuando atendemos al simple elemento físico, a la sangre y su procedencia, *pueblo* cuando solicite nuestra atención el doble elemento *psico-físico* que se desenvuelve en la historia, y *nación* cuando nos importe poner de relieve el

---

(10) *Ikus, Augustin Chaho, op. cit. pp. 268-269.*

elemento *jurídico-político*, acabamiento y perfección de toda la serie (11)".

Baina, euskal kasuan nola ematen da guzti hau? Arturo Campionek *a posteriori* argudioa erabiliaz Naparroa nazio bat dela frogatzen die bere aberrikiideei. Honela, bada, bere euskaldungoaren defentsan, izaera historikoa bereziki erabiliko du bere tesiaren froga medio bezala. "Las Cortes de Pamplona del año 1794, en plena guerra con la República francesa, hubieron de autorizar a los naturales del Reino, cuyos batallones estaban incorporados en el ejército español, para que si querían, cuando una acción se comenzase dentro del territorio nabarro, pudieran salir fuera de él a rematarla: este hecho pinta mejor que ningún otro cómo estimaba entonces todo el mundo que Nabarra era una nación unida a otra nación (12)". Bain, bere napar nazioaren ideia ez dago euskal nazioarenarekin oposaturik. "De igual manera que en Nabarra brotó el tronco individualista la organización feudal, floreció de la misma raíz en las Provincias Bascongadas la organización democrática, sin que esto quiera decir que las Provincias no hayan conocido elementos feudales en su constitución ni el Reino pirenaico en la suya (13)".

Guzti honek bere foruei buruzko ikuspuntura eramatzen gaitu: "El fuerismo consistía en tres o cuatro ideas fundamentales: unión vasco-navarra, apartamiento de los partidos ultra-ibéricos, defensa de la ley de 1841 como *statu quo* provisional, a reserva de denunciarlo por incumplimiento de parte del gobierno central, apenas la bravura de las corrientes fueristas, legitimara la reclamación de más completa autonomía (14)". Halere, seinala dezagun Arturo Campionetzat foralismoa nazionalismuaren aitzineko zerbaite zela. Autore berak ongi agertzen du: "En los tiempos de mi juventud, cuando el vocablo de *nacionalismo* no había transpuesto los Pirineos con el sentido que hoy tiene, y menos científicamente se empleaba como sinónimo de unitario, mirando a las pretensiones de la "nación española" sobre nosotros, la aspiración a reintegrar el País Vasco en sus seculares derechos recibía el nombre de fuerismo.

...Sin renegar ni un ápice de mis antecedentes, ni profesar nuevos dogmas, ni adoptar nuevas actitudes, antes bien, continuando mi modesta historia, renuncio al antiguo calificativo, y desde hoy me llamo y me llamaré *nacionalista* (15)". Are, nazionalismuaren berezitasuna zertain datzan definitzen ahaleginduko da. "La quinta esencia del nacionalismo consiste, a mí entender, en restituir a nuestro país, su poder legislativo, a quien incumbiría el cuidado de amoldar nuestra constitución histórica a las necesidades actuales, e introducir en los pactos de incorporación y de soberanía las cláusulas que a ambas partes conviniesen (16)".

(11) *Ikus. Arturo Campión, "Textos vascos de sociología y política. Discursos políticos y literarios". Editorial G.E.V., Bilbao, 1976, p. 239.*

(12) *Ibid.*, p. 27.

(13) *Ibid.*, pp. 286-287.

(14) *Ibid.*, p. 45.

(15) *Ikus, Arturo Campión, op. cit., pp. 255-256.*

(16) *Ibid.*, p. 275.

5. XIX-garren mendeko gipuzkoar frontea zerbaitengatik berezten bada bere mugimendu kulturalaren zabal eta luzeagatik da. Aldiz, politiko teorizaziotik urrundurik agertuko da, nahiz eta funtsean, horren arima izan. Horrela, 1931-an bakarrik gipuzkoar batek eginda nazionalismua alor duen teorizaziorik aurkitzen dugu. Urte hortan, Engracio Aranzadi Etxeberriak “La nación vasca” bere liburua Bilbon argitaratuko zuen. Eta autoreak berak aitortzen duenez, hori bera, Sabin Arana Goiriri osoki zordio: “Cuando el suelo vasco azotado secularmente por huracanes desvastadores como los de Sahara y Spitzberg, parecía informado, en orden a sus propios gérmenes, por el genio de Tito, el conquistador de Jerusalén, y no se percibía por ello, en nuestro territorio, clamor que no fuera de negación patria, ni voz que dejara de confirmar la muerte de la primogénita de las nacionalidades europeas, se sintió ésta estremecida, en los mismos cimientos del Aralar, nuestra sagrada montaña, por el grito de la afirmación patria de Sabino Arana Goiri, el rector del vasco, nuestro Maestro y Padre (17) ”.

Ohar hau eginik, igaro gaitezen XIX-garren mendeko gipuzkoar mugimendu kulturalaren berezgarri funtsezkoenak seinalatzera. Nahiz eta mende honen hastapenean, Gipuzkoan pertsonaia aitzindari famatu bat ba dagoen, hots, Azkoitian 1798-an sortu eta Tolosan 1864-an hilko zen José Francisco Aizkibel aipatzen dugu, halere, mendearen azken laukoraino itxaron behar da gainetako euskal probintzietan eman zen susperkunde kulturalaren parekorik aurkitzeko. Bidenabar, esan dezagun, José Francisco Aizkibel, Euskal Herriaren Hegoaldean lehenetarik izan zela Euskal-tzaindia baten beharrez hitzegiten. Eta orain mendearen azken laukoan sortzen den kultur mugimenduaren pertsonaia funtsezkoa José Manterola izanen da. José Manterola 1849-tik 1884-ra biziko da. Eta Euskal-tzaindiaren beharra azpimarratzeaz gain, zeinen falta bere Cancionero Basto liburuan aipatzen du, “Euskal-Erria” izeneko aldizkari bat hastean ausardi latza agertu zuen. Gero denboraren kurpilean hirurogeita bederatzi aletara helduko zen aldizkari horren bilduma. “Yakintza” aldizkariaren aurkezpen artikuluan “Euskal-Erria” aldizkariaz ari delarik ondoko hau esango zaigu: “Gipuzkoar euskalgienaren elerti-bizkera sorkundeak, eta bai beste euskalgienak ere, “Euskal-Erria”ren orriak dituzte gordailu. Manterrolak hasitako aldizkingiak bildu dituan eusko elertilarri ta ikasien emaitzak, zokoratu ez diteken jakintza ugaria dariote. Donostiar aldizkingian arki ditezke, nola edo hala moldatuta, eusko edesti, legegintz, elerti ta herri-jakintza (18) ”.

“Euskal-Erria”ren zahartzaroan, ikas-kimu berri bat sortu zen euskal jakintzen soroan: “Euskalerriaren alde”. “Consistorios de los Juegos Florales Vascos” deitzen zen donostiar kutsuko elerti pizkunde elkartea, 1907-

(17) Obraren erreferentzia osoa ondoko hau da: Engracio Aranzadi Etxeberria, *La nación vasca*, Imprenta Verdes, Bilbao, 1931, Aipamen hau “Prologo”an duzu.

(18) Ikus., YAKINTZA n.º 1933-ko hilbetz-otsaila, “Eusko yakintza aldez”, p. 2, in Editorial G.E.V., Bilbao, 1977.

garren urte inguruan sortutako “Euskal-Esnalea” elkartea ilundu eta hilerazi behar zuen bezalaxe, sasoitsu eta jakitun agertu zen “Euskalerriaren alde”k ere, baztertuko zuen “Euskal-Erria”, zein, “Euskalerriaren alde” aldizkariaren sortzetik laster hilko zen mende gazte eta kementsu bati bidea irekiaz. Bere ordezkaritzan, Txomin Agirre eta Karmelo Etxegarai gipuzkoarrez beste, Arturo Campion eta Julio Urkijo zituen. 1931-ko azaroabenduko alearekin hilko da Donostian sorturikako bigarren aldizkari berritzaile hau.

Baina, laster, beste hirugarren aldizkari bat sortzen da: “Yakintza”, hain zuzen. Bere helburua euskal pizkundean saiatzea da. Eta bere ahaleginen alorra kulturara mugatuko da. Honela argudiotzen du bere hautapen hori: “Yakintza ez da, eta ezin diteke izan ere alderdi aldizkingia. Gure yakintza asmoaren garbitasuna loitu ta orbantza litzake bide hortatik jota. Ez bait-dira eguneko kezkak izaten txit zindoak diran arren, berezko ikaskizun ta azterpendegi ixil-barerako egokiak ez, izanik, asmo hoien goimailaraino irixten (19) ”.

6. Arabar frontean ere ba da aitzindaririk euskal kultur autoktonoari dagokionean. José Paulo Ulibarri Galindez (1775-tik 1847-ra bizi izan zena) dugu bere izenaz. Okendon sortu bazen ere Bilbo hurbileko Abandon errementaritzatik biziko zen. Berriki bere *Gutun liburua* argitara eman izan da. Idazten zituen eta jasotzen zituen gutunak, egiten zituen bertsoak, hartzten zituen ikas-oharrak, klasaturik gordetzen zituen kaierra bat zen. Harritzekoa da, ordea, herri xeheko seme horrek euskararen baloreaz duen kontzientzia, beraren iraupenez duen ardura, eskolan sartzeari ematen dion garrantzia, eta abar konprobatzea.

Hemeretzigarren mendearen azken laukora igaro behar da, halere, Arabako bizitza politiko-kulturalean euskal susperkunde bat aurkitzeko. “Bezero-Bengoa, Berastegi ta Apraizen mailako jakitunen zirikadak esnatu zuten Araba, jakintza-lanerako. Ta hoen ondorengoa, eta batzuek eta besteak piztutako euskaltasunaren emaitza ditugu, beren argitalpenakin Euskadiaren gogo-izatasuna gero ta marra biziagoz dagerten jakintzabazkunak: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, ta abar (20) ”. Aipamen honetan azpimarratzen dena, susperkundearen lehen izaera da. Bain, ba da beste izaerarik. Horietariko bat, euskal *foruen* abolizio osoa ekarriko zuen legea eztaba aidatzean arabar politiko batek izandako jokabidean aurkitzen dugu. Madrilgo espanyiar Gobernuak 1876-ko uztailaren 21-an argitaratutako legeaz ari gara, alegia. Ba, eztaba ida horretan, Mateo Begnino de Moraza arabar diputatuak euskal nazio kontzientzia haundizki ageri duen mintzaldi sakon bat egin izan zuen. Guzi horren oinarrian euskaldunagoaren berezitasunetik ateratako arrazoiak herrengaraturik emango zaizkigu.

Hitzaldiaren lehen orrieta, iadanik, ondoko deklarazio hau irakur daiteke: “La cuestión que se ventila, señores diputados, no es una cuestión

(19) *Ikus, Yakintza, n.º 1, op. cit. p. 11.*

(20) *Ikus., Yakintza n.º 1, op. cit. p. 8.*

de mera localidad, no es una cuestión de mezquinos y rebajados intereses; es una cuestión esencialmente nacional” (21). Arazoa horrela definituaz gero, Morazak defenditzen duen kausaren arrazoizkoa historiazko argudioekin frogatuko du lehen lehenik. Eta bereziki, Espainiar Estatuko Erreinu esberdinaren eta Euskal Probintzien artean egondako akordioen *itun-izaera* azpimarratzen ahalegintzen da. Eta molde honetan euskal forua definitzera heltzen da: “La tradición atribuye el origen de los fueros a los primitivos pactos del país con sus señores y a los usos y costumbres de nuestros mayores (22)”. Eta foruaren jatorria hortan mugatuaz gero bere bilakaera agertzen igarotzen da: “Felipe IV, en 2 de febrero, 1644, reconoció que la provincia de Alava, siendo *independiente y no teniendo superior en lo temporal*, se agregó de su voluntad a D. Alonso el Onceno, con ciertas *condiciones y prerrogativas*, expresadas en la escritura de *contrato recíproco* que se otorgó (23)”. Eta berriro foruaren itun-izaeran enfasia jartzen da, pribilejiu izaera arbuiatzzen den berean: “Todos los que atacan las *libertades vascongadas*, apelan al recurso de decir que no son *pactos*, sino privilegios (24)”.

Orain euskal berezitasunaren eskubidearen alde argudiotzen du euskal komunitatean zerikusi nabarmena edo bilakaera autonomua izan duten izaerak gogoratuaz. 1) Hizkuntza: “El idioma, indudablemente, tiene gran importancia; será quizá un misterio que la ciencia se propone esclarecer; pero este mismo misterio abona la antigüedad, que es de lo que yo me ocupaba, para los fines de confirmar la *independencia vasca* (25)”. 2) Legegintzarako eskubidea: “Vamos a demostrar ahora, como otro de los atributos característicos de la *independencia* de las Provincias Vascongadas, es su derecho legislativo. El país ha tenido el *derecho a legislar* antes y después de sus agregaciones a la Corona (26)”. 3) Ekonomiazko sistema: “La *independencia* del país está igualmente confirmada por el sistema económico que han tenido aquellas provincias (27)”. 4) Nazio-arteko akordioak: “Prueban también la *independencia* los tratados internacionales que celebraron Guipúzcoa y Vizcaya en los siglos XIV, XVII y XVIII con Inglaterra, Francia y Tierra de Labort” (28).

Aipatu dugun ikuspegi hau, biziki ongi erresumitzen digu Bezero Bengoak “El libro de Alava” deitu bere liburuaren 67-garren orrian. Hone-la dio: “Siglo XIV. La provincia de Alava, *estado independiente*, siendo *libre*, no reconociendo superior en lo temporal, gobernándose por sus propios fueros y leyes, estando en plenos tiempos pacíficos, y por su espontá-

(21) Ikus, FERMIN HERRAN, *Moraza y su gran discurso, Julio 1876, Imprenta de la Biblioteca bascongada Müller y Zabala, Bilbao, 1896*, p. 10.

(22) Ikus, FERMIN HERRAN, op. cit. p. 12.

(23) Ibíd., p. 50.

(24) Ibíd., p. 78.

(25) Ibíd., p. 19.

(26) Ibíd., p. 58.

(27) Ibíd., p. 62.

(28) Ibíd., p. 64.

nea voluntad, se unió a la corona de Castilla mediante un *pacto o convenio* celebrado en el campo de Arriaga entre la Cofradía y el rey D. Alfonso XI, el día 2 de abril de 1332”.

## II. NAZIO IDEIATIK NAZIONALISMURA

Oraindaino agertu dugun euskaldungoaren defentsa, partziala izatetik ez da igarotzen, zeren, ez baitu politiko proiektu borobildurik, hots, euskaldungoaren defentsa bere erroetatik azken kimuetaraino defendituko duen proiektu orokorrik. Bizkaitar frontean, aldiz, Sabin Arana Goirirekin urrats hau emango da. Ezertan Sabin besteetatik berez baliteke honegatik da, noski. Sabin igarle, eta ez dakigu nongo zerutik eroritako gizon bezala agertzen saiatzen direnei ezin diegu jarraitu, zeren, bere lehen nazionalismuak erro ezagunak eta zabalak baititu agertu dugun bezala. Baino, hori bai, Sabini inolako zailtasun gabe ezagutuko diogu lehen nazionalismura Euskal Herrian emandako urratsaren aitatasuna. Ohar hau eginik eta beste gebe lehen galdera bat formulatzera igaroko gara.

Zer testo-ingurutan egiten du Sabinek bere errepliesioa?

Hemeretzigarren mendearen luzean eta hogeigarrenaren hastapenetan, Euskal Herrian, eta batik bat, lehenik industriatu zen Bizkaian, aldaketa haundiak gertatzen dira. Ondoko gertakizun hauk azpimarragarriak dira: 1) Siderometalurgiazko industria egituratzen da. 2) XVI-garren mendea gero, ontzigintzan, Euskal Herriak pairatzen zuen beheraldia gainditzen hasten da 1812-az gero. 3) Banketxe haundiak sortzen hasten dira. Bilbao, Vizcaya, Urquijo banketxeen kasua da. 1900-an Bolsa de Bilbao sortzen da. 4) Guzti horren ondorio laborari txiroenen proletarizazioa hasten da. Lehenik, industriatzen ari den probintzia berekoak edo probintzia ahizpetakoak dira laborantzatik proletartozara igarotzen. Baino, laster, horietarik zetozenak kapitalaren gosea asetzeko aski ez izanik, Espania Estatuko gaineatiko probintzia txironetariko laborari txiroenei dei egiten zaie. Eta molde honetan, Bilbo eta bere inguruek proletartozta multzoka duten tokietan bihurtuko dira (29).

Espania Estatuko gaineatiko probintzietatik Euskal Herrira etorriko diren langile horien bizitzako aukerak infragizazkoak izango dira. (Garaiko lekukotasunik ba dugu guzti honen konfirmagarri) (30). Erreakzioak ezberdinak gertatuko ziren errealtitate horren aitzinean, baina, bistan da kapitak horrela sortutako egoera, besterik gabe, zenez, onartzen zuela. Halere, eleizgizonek deskontent agertuko ziren (31). Sabin Arana, bere aldetik, oso ikutua eta preokupatua aurkituko da arazo honengatik, eta gogorki eraso-

(29) *Ikus gai honen osagarri. Vicens Vives, J. Historia económica de España, Ed. Vicens Vives, Barcelona, 1969. - Beltza, El nacionalismo vasco (de 1876 a 1936), Mugalde, Hendaya, 1974. - Torrente J. A., Historia de la Bolsa de Bilbao, 1965. - García Manrique, E. Eibar. Inmigración y desarrollo urbano e industrial, Zaragoza, 1961.*

(30) *Ikus, Ibarruri Dolores, El único camino, Ed. Sociales, Paris, 1962.*

(31) *Ikus, Txomin Agirre, Garoa, Aranzazu, 1966.*

ko du kapitalaren jokabidearen aurka. Era berean, Sabin Arana, bere garaieren seme, bere garaiko Europaren testo-inguru historikotik euskal nazio politika teorizatzen ahaleginduko da. Honela, bada, ez da haztu behar, Sabin Aranaren nazio balorapenak garaien Europan mondan zeuden nazioari buruzko filosofia eta ideien arabera moldatuak izan zirela. Hortan moda modako aleman filosofiaren barrenean nazioaz ari zen filosofiaren modelua (32).

Sabin Aranaren nazio teoria zertan datza? Arraza, hizkuntza, ohitura, folklore eta erreljioa lotura berezi batetan “banako” dituen komunitate batek nazioa osatzen du, esango zaigu (33). Euskal Herria, inolako ezpairik gabe, nazio bat dugu. Guk bere nazio teoria konprenitzen dugunez, “baloreen” alorrekoa dela esango dugu. Balore batzuen edukitzeak nazio izatea egiten duela agertzen baita eta guztien gainetik “arrazen” balorea edukitzeak, alegia.

Baina, Sabin Arana, bere praktika politikoan arrazaren balorea duen erekunde politiko bat ezin daitekela bere bilakaeran traba gabe aurki, jabetzen da. Honela, lehen lehenik, komunitatean arraza hortako ez dierenen zapuzkeriarekin aurkituko da. Eta bigarrenik, arrazako direnen artean ere, giza mailako balore estatiko eta idealizatu batengatik borrokatzeko prest direnak guti direla konturatuko da.

Hain zuzen, bere politikan praktika mailan zuen hutsune ageri hori betetzeko, euskal lurrean gaurregun bizi diren guztientzat, euskal arrazako edo beste arraza bateko izan, komuntasun pratikorik izan zezakeen zerbaitek atxematen ahaleginduko da. Molde honetan erreljioa bere politiko sistiman garrantzi haundienekeko bilakatuko da. Gogora dezagun, alderdiaren lema bihurtuko den: “Jainko eta legezaharra”.

Halere, Sabin Aranaren pentsamentu politikoaz esan duguna karikatura bat gerta ez dadin, bere teoriazko ikuspegia batzuk hedatuago agertzera igaroko gara. Baino, aldez aurretik aitor dezagun, horrekin ere, Sabin Aranaren pentsamentu politikoa agortzeko asmorik gabe egiten dugula.

## 1. Nazionalismua eta internazionalismua

Sabinek sortutako nazionalismuaren lehen fruitua, berak aitortzen duenez, kristau fedetik urrunduta zebiltzenak birfederatza eta sinisten jarraitzen zutenak sendoaraztea izan ornen zen. “De lo contrario, bien fácil le habría sido enterarse de que la propaganda de estas ideas (nacionalismo vasco), en los pocos años que llevan de existencia, habían producido más frutos y más firmes y duraderos que los que pudieran alcanzar muchas tandas juntas de misiones religiosas: restituyendo a la fe a los extraviados y confirmando en ella a los creyentes, moviendo a corrección a corazones

(32) *Ikus, Fichte, Discours à la nation allemande*, Ed. Aubier Montaigne, Paris, 1975.

(33) *Ikus, Sabino Arana, Obras escogidas, Antología política*, Ed. Haranburu, San Sebastián, 1978, “¿Qué somos?” (Bizkaitarra n.º 28, 29 y 30) p. 52.

vencidos por las pasiones y fortaleciendo a los virtuosos, y, con su influencia intensa en la vida social, restaurando, en fin, las buenas costumbres y atajando la irrupción de las malas. Y no es ilusión particular del seglar que esto escribe, Sr. Climent: es juicio unánime de muchos sacerdotes que con ánimo sereno e imparcial han venido observando paso a paso la vida y las obras del partido nacionalista y palpando sus efectos en las públicas costumbres y en el espíritu de los individuos (34)". Molde honesto gaian sartu nahi izan dugu. Honela, beste behin klar baitago Sabin Aranarentzat nazionalismua erreljioaren serbitzuko dela, hots, gaineatiko eginbide guztien gainetik dagoela erreljioa. Baino, bereziki erreljiozko ez diren egitekoak edo eginbeharrok ere ba dira nazionalismuan: "El nacionalismo Bizkaino tiende a la constitución de Bizkaya en nación absolutamente libre e independiente de las demás (35)". Era berean, Sabin Aranak nazionalismuaren eta internazionalismuaren arteko zerikusiak aipatzen ditu. Honela, Sabin Aranarentzat Euskadik Espainiarekin dituen harremanak internacional alorrekoak dira. "De todas las maneras y puesto que el hombre no hace a la cosa, esa política bizkaina, objetivamente tan antigua como Bizkaya, aunque subjetivamente, o en la mente y el corazón de los Bizkainos, tan nueva ante el público, que apenas cuenta un año de existencia, aspira, llá-mese nacionalismo o separatismo, a que Bizkaya se constituya en nación perfectamente independiente sin otras relaciones con España que las internacionales que, por dictamen natural, deben existir entre todas las naciones, como sociedades humanas habitantes en una misma tierra, y por tratados particulares se establezcan en la esfera comercial (36)". Are oraino, internazionalismuari ereserki poetiko bat zuzentzen dio: "Los pueblos se diferencian y sólo cultivando su personalidad privativa viven como pueblos. Pero esta diferenciación debe ordenarse a la suprema armonía universal. Diferenciación personal de pueblos: libre cambio espiritual entre ellos. He aquí la variedad en la unidad, he aquí el orden" (37).

## 2. Autonomía eta nazional independentzia

Sabin Aranaren planteamienta originala independentista da. Hortarako Euskadien errealtate historikoan oinarritzen da. Euskadik independentziarako ez den autonomiarik sekula ez duela bilatu esango digu: "Bizkaya nunca ha sido autónoma en el sentido que hoy tiene esa palabra, y no es pequeña aberración la de los que afirman como hecho histórico la unión, ya voluntaria, ya forzada del Señorío de Bizkaya al Reino de Castilla.

No ha habido tal: la unión única; que se verificó en 1379, fue la de los

(34) *Ikus, Sabino Arana, Obras escogidas, op. cit. "La patria", n.º 38, 1902, p. 98.*

(35) *Ikus, Sabino Arana, Obras escogidas, op. cit. "Fuerismo es separatismo" (Bizkaitarra n.º 8, 1894), p. 146.*

(36) *Ikus, Sabino Arana, Obras escogidas, op. cit. "Fuerismo es separatismo", pp. 146-147.*

(37) *Ibid., "Conócete a ti" in Euzkadi n.º 3, 1901, p. 215.*

títulos diversos, cuales son el de *Señor de Bizkaya y Rey de Castilla* en una sola persona, D. Juan, hijo del Rey de Castilla, D. Enrique de Trastámara, y de la señora de Bizkaya D.<sup>a</sup> Juana Manuel, cuarta nieta de Diego III, XII señor de Bizkaya desde Arrigorriaga; unión material y puramente extrínseca, en manera alguna formal e intrínseca; unión indiferente en sí, aunque de resultados desastrosos como estamos viviendo... (38) ”.

Eta erakatsi hauek onartu nahi ez dituztenak pedagogikoki irabazi nahirik ondoko adibide hau aipatzen du: “Es, pues, esto autonomía de Bizkaya respecto a España? Si tal concede, habrá asimismo que afirmar de España y Alemania recíprocamente; lo cual a nadie hasta la fecha se le ha ocurrido, y supondría un muy diverso concepto del en que hoy se toma la palabra autonomía e idéntico al de independencia absoluta.

Autonomía, en la concepción que tiene en el lenguaje común, es la forma en virtud de la cual una parte política es, bajo un respecto especial, independiente de su todo al que la unen dependencias generales. Aplíquese la proposición menor a Bizkaya con su historia en la mano, y dedúzcase luego la conclusión (39) ”. Eta Sabin berak testo batetan gogoraziko digunez, herriak bere askatasuna arriskuan zegoela sentitzen zuenean, ixilka mugituaz kendu nahi ziotena defenditzen edo kendua ziotena birreskurtzen ahalegintzen zen. “El pueblo bizkaino, *corto en palabras pero en obras largo*, porque, si bien las partes que contendían en estos litigios eran la República y el Señor, como éste, no obstante, era ya en aquella época Rey de España, imponerse el Señor, a la República y mermarle sus libertades o franquicias era, en los resultados prácticos, tanto como imponerse España a Bizkaya y atropellar su libertad o independencia (40) ”. Lortu nahi dena ez da deserdkoitzea, Espainiarekin hausketa baizik. “Cataluña puede ver el término de su desgracia en el cambio de gobierno centralista de España por otro que sea regionalista; para Bizkaya lo mismo monta que el poder español se llame Juan que Pedro, pues no puede darse un gobierno (ni el pueblo español se lo consentiría) que retirase totalmente su dominio del territorio bizkaino y dejase a Bizkaya disfrutar de la absoluta independencia que constituye su derecho (41) ”. Berriro ere aipamen honetan klar agertzen da Sabin Aranarentzat Catalunya ez dela nazio bat. Eta hori, espainiar eta katalandarren artean arrazazko ezberdintasunik ez duelako aurkitzen. Aldi berean, arrazoi bera aurkituko du Catalunyan autonomismua loratu den berean Euskadin independentismua sortu dela esplikatzekoan. Eta testo-inguru nonetan gaudenez galdetzekoa litzateke, Sabin Aranarentzat spanishol izatea zer ote den? “Conste que el adjetivo español empleamos en el sentido etnográfico, no en el político actual... Etnografía-

(38) *Ibid.*, “¿Autonomía o independencia? De la Política de Bizkaya. in “Pliegos histórico-políticos”, 1888, pp. 141-142.

(39) *Ikus, Sabino Arana, Obras escogidas, op. cit. ¿Autonomía o independencia? De la política de Bizkaya. p. 142.*

(40) *Ibid.*, “Mentiras de la patria” (*Baserritarra* n.<sup>o</sup> 4, 1897) p. 125.

(41) *Ibid.*, “Errores catalanistas” (*Bizkaitarra* n.<sup>o</sup> 16, 1894, p. 189).

mente, hay diferencia sustancial entre ser español y ser euskeriano, porque la raza euskeriana es sustancialmente distinta de la raza española (lo cual no lo decimos sólo nosotros, sino todos los etnólogos) y el concepto étnico no es jurídico, sino físico y natural, como relativo a la raza, de suerte que etnográficamente, los euskerianos no pueden ser españoles aunque quieran, pues para ser españoles tendrían que dejar de ser euskerianos: por eso al decir pueblo español, nación española, no podemos comprender dentro de esta dicción al euskeriano, a no ser por supina ignorancia de los más conocidos en etnología, porque *pueblo* y *nación* son vocablos que se refieren a la raza y no al derecho (42)". Nazioaz dauden ikuspetaiak molde anitzetakoak dira, baina, hemen Sabin Aranak eman digun nazio ikuspuntu beretik ihardunaz gauden mendearen erdi aldean Alemania giza hilketa ankerrenera heldu izan zen. Halere, ohar hau egunik, esan dezagun Sabin Aranaren ikuspuntuán ageri den espainolismuari buruzko konstatapena ere azpimarragarri dela. "Pasaba a la sazón por allí un caballero bizkaino, y como le sonaban mal las frases del celador, acercóse a él y preguntóle la causa de su desaforada actitud.

—Si no la entiende Ud. no debe ponerse de esa manera, porque ella no tiene la culpa —le dijo al guarda el transeúnte.

—Que aprenda a hablar el español —contestó el celador, profiriendo palabras tan cultas como su persona. ¡Espantosa dominación la que sufre callado el euskaldún, y que será el asombro del historiador, a cuyos ojos ha sido siempre indomable nuestra raza!

¿No podría el Ayuntamiento establecer que en cada fielato hubiera siempre un celador cuando menos que hablase euskara? ¿No es esto lo que exigen no ya el patriotismo, sino la justicia, la cultura y el sentido común? (43)".

### III. Ondorioak

Lantxo honen luzean baieztu eta frogatutako adierazpen bakoitzari atera izan diogun ondorioetxea tokian tokiko emanaz, lan honen osotasunaz zenbait ondorio atera genezake. Hain zuzen, laburki bada ere, hortan sariatuko gara. Eta hasteko, lehen konstatapena ondoko hau litzateke: nazioa, sozial alorreko izaki denez, aldakor eta mugikor dela. Honela bada, nazioa, aldi bakoitzean inguru bati loturik eta beste izaki batzuei herremandurik aztertu behar da. Ximplea bezain garrantzizkoa da azpimarratze hau.

Halere, lehen aipamen horrekin jarraituaz gehi dezagun sozial mugida horretan nazio izakiak bere muina, edo bere funtsa, beti gorde izan duela. Hortik nazio ideia errespeto haundiarena merezi duen sozial kategoria bat bihurtzea. Honi erantsita adieraz dezagun ere, euskal nazio ideia ez dela,

(42) *Ikus, Sabino Arana, Obras escogidas, op. cit. "Efectos de la invasión". (Baserritarra n.º 10, 1897)* p. 69.

(43) *Ibid., "Extranjeros en Bizkaya" (Baserritarra n.º 12, 1894), p. 203.*

askotan, batzuen partetik agertu izan den bezala, hemeretzigarren mende-tik hogeigarrenera gizon pribilejiatu baten inspirazioz sortutakoa. Aitzitik, nazio ideia hori euskal gizartean piskanaka eta uhin askoren ondorioz sortu eta borobil-dutako zerbait dugu.

Azken funtsean, sozial gertakizun gehienak bezala, bizi urduri eta aratzotsu bat izan duen herri baten behar politikoaren arabera definitzen joan izan da. Euskaldunek beren defentsa orokorra molde ezberdinetan egin izan dute historian zehar. Baino, gaineatiko herriei gertatu zaienez, euskaldun herriari ere, nazio izenez izendatzen diren neurriak hartzea iritsi izan zitzzion bere iraun beharra zihurtzeko.

Bestalde, nazio ideiak ere berrituaz ugaritzen joan dira produkzioko molde berrien egiturak inposatzen joan diren neurrian. Horregatik, ez da nazio ideia bera, kapitalismuaren sorrrera aitzinakoa eta ondokoa edo geroakoa. Nola bata hala bestea, ondorioetan ezberdin direnez, berezten jakin behar da.

Hildo hau bere azkenetara eramanaz esan dezagun ere, nazio ideia ez dela nazionalismura mugatu behar edo nazionalismuarekin parekatzen. Beti ez bait dira bata eta bestea elkarrekin izan historiaren baitan. Ezpairik gabe, egia haundia da, nazionalismua kapitalismuarekin sortzen dela. Baino, ez da hain egia eta gutiago ere, nazio ideia kapitalismuarekin sortzen denik. Euskal Herriaren historian aise bereztu izan ditugu bi aldi eta gerta-kari horiek.

Finean, gogora dezagun, nazionalismua deitu mugida bera ideoloja politiko desberdinaren hezur-mami gerta litekela. Berez, eta nahitaez, ez doa-la ideoloja bakar zehatz bat lotuta. Nazionalismuak eta nazionalismuak daudela, alegia. Hori bai, deitura hori historikoki mugatutako zerbait dela eta, nazioaren defentsa hori adierazteko, “nazional askatasunerako mugimenduak” edo “nazionalismu iraultzailea”, eta abar ibiltzen direla.